

Egoera ekonomikoa eta
Merkatuak
ASTEKO LABURPENA

2017ko uztailaren 3tik uztailaren 7rako astea


➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMIa



Datuaren analisia

Euroaren herrialdeetako manufakturen sektoreko PMIa 57,4 puntukoa izan zen ekainean, eta azken 74 hiletako maximoetan kokatu zen, maiatzeko 57,0 puntuak eta aurreikuspenak gaindituz. Ekoizpenaren hazkundearen atzean eskaera berrien igoera daukagu. Horri esker, enpresek azken 20 urteotako maximoetatik hurbil mantendu dute enplegua sortzeko erritmoa. Maiatzean erregistratu zen azterketa honen errekorra. Euroguneko zerbitzuen PMiek behera egin zuten, baina espero zena baino gutxiago (Italiaren kasuan izan ezik). Erresuma Batuan, manufakturen PMIa 54,3ra jaitsi zen, azken hiru hiletako minimoa, maiatzeko 56,3ko datu berrikusiaren ondoren, eta 56,5eko aurreikuspenetik behera geratu zen. Bestalde, Britainiar ekonomiarentzat funtsezkoa den zerbitzuen sektorearen hazkunde-erritmoa azken 4 hileotako txikiena izan da (53,4 vs 53,8 maiatzean).

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erosketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: MANUFATUREN ETA ZERBITZUEN ISMa



Datuaren analisisia

Amerikako manufakturen ISMa 57,8ra igo zen ekainean, bere mailarik altuena 2014ko abuztutik (55,3). Hazkundera orokorra izan zen. Ekainean, lantegien jarduna erritmo bizian handitu zen, eta aurrerapauso sendoak eman ziren ekoizpenean, eskarrietan eta enpleguan. Horrek guztiak ekonomia indartzen ari dela esan nahi du. ISM indizearen 2,9 puntuko hileko igoera, igoerarik handiena izan zen 2013ko hastapenetatik. Zerbitzuen ISMak, industriaren bere homologoak bezala, sorpresa positiboa eman zuen, ekainean 57,4 puntuetaraino igo baitzen, aho batez aurreikusitako 56,5en gainerik.

Adierazlearen azalpena

ISM zerbitzuen/manufaktura-indizeak konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hileroko egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisia



Estatu Batuetako ekonomiak 222.000 lanpostu sortu zituen ekainean, analistek espero zituzten ia 180.000 enpleguetatik gora. Enplegu sorrera hori gorabehera, langabezia-tasak hamarren bat egin zuen gora, % 4,4raino, hamarren bat igo zen jarduera-tasaren hazkundearen ondorioz (persona gehiago sartu ziren lan-merkatura), % 62,7tik % 62,8ra. Orduko soldatei dagokienez, datua aurreikusi baino okerragoa izan zen, % 0,2 igo baitziren (% 0,3 espero zen), eta aurreko hileko datua pixka bat beherantz berrikusi zen.

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ASIA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMIa



Datuaren analisisa

Txinan, ekaineko Caixin manufakturen PMIa 49,6tik 50,4ra igo zen, merkatuak 49,8ra igotzea aurreikusi bazuen ere. Ekainean, hiru hiletan izan duen hazkunderik handiena izan zuen, eskari berriei eta ekoizpenari esker. Horrenbestez, gorako bidea hartu du berriro, maitatzeko datu okerraren ondoren. Ekainean, zerbitzuen PMIa 51,6 puntuetaraino jaitsi zen, maitatzeko 52,8tik (maitatzeko hile horretan, ezusteko gorakada batek lau hilez jarraian eman ziren jaitsierei amaiera eman zien). Ekaineko datu hori azken urte honetako daturik baxuena da, sektorea hedatzen ari den arren. Japonian, ekaineko fabrikazioaren PMIaren azken datua 52,4raino jaitsi zen; hala ere, aurreratutako datuaren gaitetik egon zen (52). Ekainean, zerbitzuen PMIa 53,3 puntuetaraino igo zen maitatzeko 53 puntuetatik, azken ia bi urtetan izandako maximoa.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erorketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale. ⁵

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Erem	Adierazle	Aurreiku
07/10	Japonia	BoP oinarrizko merkataritza balantza	-¥45.0b
07/10	Txina	Urte arteko KPIa	% 1.6
07/10	Txina	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 5.5
07/10	Alemania	Balantza komertziala	18.3b
07/10	Frantzia	Bank of France enp sentimentua	--
07/10	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	28.2
07/12	Japonia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 2.1
07/12	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4.6
07/12	Eurogunea	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% 2.7
07/12	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
07/12	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
07/13	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.6
07/13	Frantzia	Urte arteko KPIa	--
07/13	Espania	Urte arteko KPIa	--
07/13	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
07/13	Txina	Urte arteko inportazioak	% 14.0
07/13	Txina	Urte arteko esportazioak	% 9.0
07/13	Txina	Balantza komertziala	\$43.00b
07/14	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
07/14	Eurogunea	Balantza komertziala SA	--
07/14	Estatu Batuak	Urte arteko KPIa	% 1.7
07/14	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratua	% 0.1
07/14	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.3
07/14	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	95.0
07/14	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
07/14	Estatu Batuak	Aurreikuspenak Mich. U.	--

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Burtsako indizeen balantzea nahiko positiboa izan da astearen bukaeran Europan eta AEBetan, eta mistoa Asian. FEDen akten argitalpena eta EBZ izan ziren merkatuen arreta bereganatu zutenak. Feden Minuten tonuak politika hedakorretik ateratzeko estrategia gogortzeko aukera bultzatzen zuen, garrantzia kendu zien inflazioaren azken datuen ahultasuna gorabehera. Inbertsiogileen artean ia ez zen erantzunik izan argitalpenaren ondoren. Bestalde, EBZren Akteak baieztatu dute EBZk ez duela pizgarrien politika luzatzeko asmorik. Erakundearen arabera, inflazioaren egoeraren inguruko konfiantza gehiago hobetzen bada, bere helburua den % 2 ingururaino, joera ultrahedakorriari eusteko argudioak berrikusi ahal izango lirake. EBZko kideek ondoren egindako adierazpenek mezu horren bidetik joan ziren. Horren ondorioz, burtsek galera arinak izan zituzten. Maila makroan, besteak beste, manufakturen PMLaren datuak (Txina uzkurdua mailetatik kanpo, Eurogunea azken 74 hiletako maximoetan eta AEB azken 3 urteotako maximoetan) lagungarriak izan ziren errenta aldakorreko merkatuentzat. Ipar Amerikan, enpleguaren txostenak ere ez zuen hutsik egin.

ERRENTA FINKOIA:

Gorako mugimenduak munduko zor publikoaren errentagarritasunetan, Banku Zentralek pizgarriak kentzeko aukeren aurrean. Europako merkatuan eragin handiagoa izan zuten EBZren nobedadeek. Alemaniako bundaren interes-tasak nabarmen igo ziren, % 0,57raino, azken 18 hiletako maximoetaraino. Espainiako bere homologoa %1,73raino igo zen (+% 0,19) eta arrisku-prima 116 op-koa izan zen. Kreditu-merkatuak pixka bat egin du okerrera.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Euroa indartsu dago yenaren eta liberaren aurrean, eta joan-etorriko mugimendua bizi izan du dolarrekiko. EBZren aktak argitaratu aurretik, Europako dibisak 1,14 dolarren maila gaintu zuen berriro, astean zehar maila hori galdu ondoren. Hegazkortasuna petrolioaren prezioan. Ekainean, LPEEren esportazioen gorakada, Nigeria eta Libia berriro batu zirelako, Errusiak ekoizpena murrizteari emandako ukoa eta AEBetako ekoizpenaren gorakada izan dira bilakaera markatu dutenak (-% 3,52). Urreak behera egin du, Banku Zentralen adierazpen ez hain malguen ondorioz.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Eur)	171,51	-0,04	1,16
IBEX 35	10.488,80	0,42	12,15
DJ EURO STOXX 50	3.463,84	0,64	5,27
DJ STOXX 50	3.116,31	-0,19	3,51
FTSE	7.350,92	0,52	2,91
S&P 500	2.425,18	0,07	8,32
Dow Jones	21.414,34	0,30	8,36
NASDAQ	6.153,08	0,21	14,30
NIKKEI 225	19.929,09	-0,52	4,26
MSCI EMERGENTES (Eu)	345,66	-0,70	7,65
MEXBOL	50.059,02	0,40	9,68
BOVESPA	62.322,40	-0,92	3,48
SHANGHAI	3.370,10	0,80	3,71
Rusia Rts Moscú	995,24	-0,57	-13,63

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,60	-0,03	0,17
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,18	0,08	0,10
EE.UU 2 AÑOS	1,40	0,02	0,21
ALEMANIA 10 AÑOS	0,57	0,11	0,37
ESPAÑA 10 AÑOS	1,73	0,19	0,35
EE.UU. 10 AÑOS	2,39	0,08	-0,06
ALEMANIA 30 AÑOS	1,37	0,12	0,43
ESPAÑA 30 AÑOS	3,02	0,18	0,41
EE.UU. 30 AÑOS	2,93	0,09	-0,14
Spread de credito (pb)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	56,77	0,77	-15,27
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	255,52	8,77	-33,18

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,14	-0,20	8,39
Yen / Euro	129,96	1,21	5,66
Libra/ Euro	0,88	0,87	3,64

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	46,53	-3,52	-16,03
Oro	1.213,15	-2,29	5,28

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.